


**Elkarrizketa**

**XABIER LOPEZ DE MUNAIN** ▶ Legazpiko artxibozaina



MIRIAM LUKI

# «Legazpi historian benetan 1608. urtean sartu zen, askatu ostean»

**Legazpi** ▶ Gaur aurkeztuko dute kultur etxean Legazpi Seguratik banatu zela 400 urte betetzen direla ospatzeko egingo dituzten ekitaldiak.

MIRIAM LUKI

Xabier Lopez de Munain (Gasteiz, 1959) Legazpiko Udaleko artxibozaina da. Gasteizen «kasualitatez» jaino zela dio, Legazpin hazi eta hezi baita. Legazpi Seguratik askatu zela 400 urte betetzen direla-eta sortu duten batzordeko kide ere bada. Gaur arratsaldeko zazpitan *Legazpi 400 urtez aske* batzordeak antolatutako ospakizunaren egitaraua aurkeztuko dute kultur etxean, eta ekitaldi guztiak iragarriko dituen logotipo lehiaketako irabazlea nor izan den jakitera emango dute.

**Partaide asko izan al ditu sortu duzuen batzordeak?**

1608. urteko askapenaren berri eman nuen udaletxean, aurten 400 urte bete eta zerbaite berezia egiteko aukera genuelako. Batzordea sortu eta hasierabatean ez zen jende gehiegi bildu, baina denborak aurrera egin ahala gero eta herritar gehiago bildu ditu. Batzordea hiru taldetan banatu dugu: batzorde historikoa, ekitaldiak antolatu dituen taldea eta mendi irteerak prestatu dituenak.

**Garrantzia handia izan al zuen Seguratik askatu izanak Legazpirentzat?**

Gure herria historian benetan sartu zen 1608. urtean. Aurretik Mirandakoak Mirariak herriaren izena nolabait zabaltzen bazuen ere,

gertaera hark ez zuen hainbesteko entzuterik izan. Askapenak, ordea, ondorio asko izan zituen, Gipuzkoan beste herri asko berdina egi-tera bultzatu baitzituen. Legazpi, beraz, lehenengo aldiz parte hartu zuen historian.

**Nondik zetorkion Legazpi Seguratik askatzeko grina hori?**

Arrazoi asko zegoen. 1384. urtetik Seguraren menpe zegoen. Aurretik bi aldiz saiatu zen Legazpi Seguratik askatzen, 1538an eta 1564an. Bietan, ordea, Gaztelako Ogasun Kontseiluak atzeratzea botatzen legazpiarren eskaera. Legazpi, dena dela, ez zuen etsi eta aurrera jarraitu zuen. Irun ere saiatu zen, eta baita Berastegi ere.

**1608an lortu zuen. Nola?**

Ezkutuari Felipe II.aren erresumaren porrota nabaria zen ekonomiarik zegoenez, eta marabediak behar zituen. Ogasun Kontseiluak Legazpiaren grina hura diru-iturria izan zitekeela ikusi zuen eta eskaera onartu zuen.

**Segura prest agertu al zen?**

Ez. Horregatik egin zuten modu ezkutuan. Garai hartan Gipuzkoan mailan Segura, Tolosa, Ordizia eta Hondarribia hiribilduen menpe zeuden herri txiki ugari. Segurak Erret eta Gerra kontseiluetara eramanez mahi izan zuen gaia.

**Zergatik?**

Askapenak arlo militarrean ondo-

rioko izango zituela esan zuen Segurak; alardeak egiten zirenean Legazpi bere kasa joango zela, eta horrek Gipuzkoako ordura arteko egitura militar a bankaz gora jarriko zuelako. Erret Kontseiluan Legazpi eskatzen zuen askapenak Gipuzkoako egitura osoa ukituko zuela salatu zuen Segurak.

**Baina gaia Ogasun Kontseiluan gelditu zen.**

Bai, Kontseilu hark ez zion Segurari informaziorik eman eta aurrera jarraitu zuen. 1608. urteko irailaren 12an Legazpi hiribildu bihurtu zen.

**Zer suposatu zuen horrek Legazpirentzat?**

Alkatea, ofizioak (zinegotziak), bi eskribau (idazkaria eta notarioa) eta herriaren mugariak ipini zituzten. Alkateak Gipuzkoako Batzar Nagusietara joateko eskubidea zuen, eta horrek Gipuzkoaren egiturarako ere aldaketak ekarri zituen.

**Nor izan zen lehenengo alkatea?**

Martin de Zabaleta izan zen. Pedro Sanchez de Collado epailea bidali zuen Ogasun Kontseiluan lan horiek guztiak zuzartzeko. Hark Legazpiko biztanleen lehen errola ere egin zuen. Izan ere, Legazpi biztanle bakoitzeko hogei dukatetabescribau izateagatik hirurehun ordaindu behar baitzizkion Gaztelari.

**Zenbat biztanle zituen Legazpi orduan?**

Dokumentu eren batean 219 eta hiru laurden zirela irakurri dute, ez dakit nola egingo zuten zenbaketa hori! Guztira, marabeditan,

750.000 ordaindu behar zituen Legazpi. 1595ean arrautza batek marabedi bat balio zuen, hortaz dirutza handia zen.

**Askapena lortzeko bidean norbaitek nabarmendu al zen?**

Ez. Herritar guztiak bat eginik aritu ziren. Gaur egun gure arbasoek egindako arekin harro egon behar dugu.

**Orain lauhun urte bete dira. 300. urteurrena ospatu al zen?**

Bai. Udaleko ordezkariak eta herritarak urteurrenaz jabetu, eta elizako arkupeetako garbileku publikoa egin zuten, Udalaren eta Lino Guridiren dohaintzari esker.


**Laburrak**

**Goierri GR-9 ibilbideko lehen etapa antolatu du**

**URRETxu** ▶ Goierri kirol elkarteak mendi sailak GR-9 Probintziako Errege bidearen edo Zezenen Abeldiaren barrera mendi irteera antolatu du. Bidearen lehenengo etapa egingo dute mendizaleek etzi. Noaindik Eskirotzera eta handik Berriozarrera iritsiko dira, etapa Muskitzen amaitzeko, ibilbideak, beraz, Nafarroa eta Gipuzkoako mendiak hartuko ditu. Irteera goizeko zazpitan izango da, Goierriren egoitzatik.

**Governors eta Cool Circus, gaur gauetan gaztetxean**

**LEGAZPI** ▶ Gaur 22:30ean, Legazpiko gaztetxean Governors eta Cool Circus taldeek kontzertua emango dute. Arrasatekoak dira Governors taldekoak; *Itxaroren barra ez da itxaropena* diskoa besapean dutela etorriko dira Legazpira. Talde berria izan arren esperientzia handiko musikariak ditu; kantaria, esaterako, Ekun eta Fjord taldeetan ibili zen, proiektu hau sortu aurretik. Taldearen estiloa rock indartsu eta melodikoan kokatu daiteke. Gorputz handiko kantuak dira, espazioa azkar betetzen duten horietakoak. Musika gihartsu eta zaildua dela esan daiteke.



Governors-eko bi kide. BERRIA

**Iragarki laburrak**

**LANA**

■ **Ordizia.** Hitzaro euskara elkarteak aisialdiko proiektuak kudeatzeko pertsona behar du. Lan jardun erdia. Bidali curriculumak urtarilaren 26a baino lehen *hitzaro@euskalnet.net* edo Hitzarora (Zumalakarregi 1, Ordizia).

■ **Goierri.** Tabernarako zerbitzari bat behar da; baldintza interesgarriak. 688 632 201.

■ **Goierri.** Adinduek edo umeak zaintzen, edo garbiketa lanetan lan egingo luke emakumeak. 620 743 076.

**SALGAI**

■ **Etxea.** Etxebizitza salgai Zegaman, 3 logela, komuna, barruko

trastelekua, sukaldea eta egongela. Berogailua. Bizitzen jartzeko prest. 652 766 951.

■ **Altzariak.** Logela txuria salgai, konpletoa, berria eta egoera onean. Kapritxosoa. 665 717 162.

■ **Egurra.** Sutarako pago egur lehorra salgai. Etxera entregatzen da. 615 755 762.

**ALOKAIRUAN**

■ **Kafetegia.** Basainen kafetegia alokatzen da, lanean hasteko prest. 666 774 578.

**BESTELAKOAK**

■ **Kontsultak.** Tarot kontsultak. 943 766 214.